

...eta

# KITTO!

879 zkoa.  
2014-11-21



## Antzerki hiri eredugarria

Martxoaren 7tik  
apirilaren 13ra

**EUKi**

ARTEKARITZA

Toribio Etxebarria, 1 - behea  
943 20 42 99

**AUTOAREN ASEGURUA**  
*preziorik onenean*





# LANTALDE PROFESIONAL BIKAINA IZEN-ABIZENEKIN



**ZERBITZU INTEGRAL AKREDITATUA**

**ETENGABERO ORDUTEGIA**



Doctor **Antonio Murillo**

Hezur Birsortuntza eta ehun bigunen Maneiuko Zuzendaria. **Lleidako Unibertsitatea eta Madril.**

Periodontzia Koordinatzailea, Odontologian Lizentziatua. **Alfontso X.a Unibertsitatea. Madril.**

Implantologia Masterreko Irakaslea. **Lleidako Unibertsitatea.**

Kirurgia Masterreko Irakaslea. **Salamancako Unibertsitatea.**

Unibertsitate Instituzioetako Irakasle gonbidatua.

**Madrilgo Unibertsitate Konplutentsean eta Bartzelona, Sevilla, Almeria, Lleida, Leon, Malaga... Unibertsitateetan.**

Doctora **Ainhoa Zulueta**

Odontologian Lizentziatua. **Euskal Herriko Unibertsitatea. Unibertsitate Aditua Aho Kirurgian, Periodontzian, Implantologian. Leongo Unibertsitatea.**

Diplomatua Aho Kirurgian. **Bartzelonako Unibertsitatea.**

Hortz-Estetikan Diplomatua.

**Madrilgo Unibertsitate Konplutentsean.**

Hortz-Estetikan Diplomatua.

**Autran Institutoa, Bartzelona.**

**Etengabeko Formakuntza. New York-eko Unibertsitatea.**

Oklusioan Graduondoa.

**Anibal Alonso Doktorea.**



**Astelehenetik ostiralera:**

**8:00etatik 22:00etara**

**Zapatuetan:**

**10:00etatik 14:00 etara**

**Eibarko Dendarien Elkarte**  
ABANTAILA HANDIAK ELKARTEAREN TXARTELAREKIN ORDAINDUZ  
**Galdetuiguazu!**



**MUTUAK ETA ASEGUURAK**

GLOBAL CARD, OCASO, EMESA PREVENCIÓN, CARREFOUR LIFE, AZKARAN, FRATERNIDAD, IMQ, SANTA LUCÍA, PREVISORA BILBAINA, AEGON/STONEBRIDGE, AVANTSALUD, PADI...

**Galdetuiguazu!**



**IRAZABAL**

clínica dental

**FINANTZIAZIO BEREZIA**

Abantaila ekonomiko handiak eta finantziario aukera ezinhobeak. **GALDETU**

Julián Etxeberria, Nº 12 - 1º - 20600 EIBAR - Tel.: 943 20 85 52 - www.clinicairazabal.com

# ASTEAN ESANAK

"Gizartea aldatu egingo da: askok etxetik egingo dute lan, heziketa ere saretik jasoko dute, eta behar ditugun produktu batzuk ekoizteko makina etxean edukiko dugu. Adibidez, koilara bat behar dugunean, ez dugu erosi beharrik izango, 3 dimentsioko inprimagailuan egingo baitugu"

(CARLOS WAISMAN, SOZIOLOGOA)

"Euskadi Irratian entzuleei inoiz galdetu al digute zer nahiago dugun astelehen ilunabar batean, Arantxa Iturbe eta kultur eragileen arteko solasaldi sosegatua ala ikuskizun ikusezin baten kontaketa garrasiz betetakoak? Zergatik ez erdibideko formula? Irratiko programazioa errespetatuz, konexioak egin zelaiarekin"

(XABIER LASA, KRITIKARIA)

"Emakume beltzek diskriminazio handia jasaten dute lanean, gehienak edadetuen edo gaixoen zaintzan egiten dutelako lan, eta horretan jendeak Latinamerikako emakumeak nahiago izaten ditu: diotenez, samurragoak dira, eta beltzak matxinoagoak eta zakarragoak. Unibertsitate ikasketak edo lan esperientzia zutenak, bestalde, euren estatusa asko jaitsi dela ikusten dute"

(JEANNE R. DACOUGNA,  
GIZARTE EKINTZA TEKNIKARIA)

## Gure aurrekoek erabiltzen zuten euskerara

**KAKANARRU.-** Pertsona txikia. "Bildur giñan zeñi ikusi bihar ete genduan, eta agertu zan kakanarru bat".

**KAKAPIRRI.-** Zazpikia, pertsona urduria eta jenio txarrekoa. "Egon hadi trankil, kakapirriori! Etorriko dok trenan".

**KAKATI.-** Komunera sarritan joaten denari burla egiteko esaten zaio. Beldurtiari ere bai. "Ume kakatixa! zenbat bider aldatu detsazuz ojaliak?". "Behin illuntzia ezkerro ez jok horrek urtengo: beti izan dok kakatixa".

## eskutitzak

### "AZITAINGO FELIX BERGARA" (ZORTZIKO ZAHARRA)

Felix gaur izan nahi nuke uso edo enara, mezulari esateko "gurekin bizi zara", nire akorduan zaude izarren argitara, zirraraz eroan nuen zure txera ziegara.

Zure etxea izan da Azitaingo eliza, "Herria bi mila" berriz utopien geriza, hierarkiak bihurtu du Vatikanon lar grisa, zuk jardun duzu ordea kristau onberen gisa.

Berrogeita hamar urte Jesusen batzarrean, abade eta lagun min herritarren aurrean, artzain on bat izan zara eibartarren larrean, jendartea hobetzeko beharren alorrean.

Helburu bi zenituen gogoan iltzatuta, bakea eta herria zuzenki askatuta, gogotsu aritu zinen euskarari lotuta, injustiziak salatuz elizan elkartuta.

"Presoak askatasuna bakarrik ei du galtzen" esaldi hori zenuen bileretan aipatzen, sufritzen zutenen alde maitez zinen lerritzen, kartzelan eskubideak direlako urratzen.

Zure multikopista zen frankismoan aldarri, aulkiak ziren hamaika ekintzen osagarri, Ama Birjina zurekin apalki miresgarri, abuztuko jaian plazan irrifarren pizgarri.

Azitaingo lemazaina joan zara isilean, gaur ez zaude "Arrateko" denon "Kulturalean", umezurtz laga gaituz, ilunki otsailean, elurak erakutsi du nahigabea kalean.

Felix jaso esker ona duzulako merezi, izan dadila bertso hau arimetan eres, Mari Carmenen laguntzaz izan zarenez hazi, gure bihotzak dituzue ereinda irabazi.

IBON MUÑO

### OKERRAK ZUZENTZEN

Azken astekariko Kultura orrietan kaleratutako "Piano ikasle gazteak Andoainera" berrian, Juan Bautista Gisasola Musika Eskolako irakasleen izenak aipatzerakoan, Isabel Laspiur eta Maite

Bilbatuarekin batera Maite Berriozabal ipini bagenuen ere, hor behar zuen izen zuzena **Maria** Berriozabal da.

ERREDAKZIO KONTSEILUA



Euskara Elkartea

**ARGITARATZAILER:** ...eta kitto! Euskara Elkartea. **HELBIDEA:** Urkizu, 11 - solairuartera. 20600 Eibar

**TELEFONOAK:** 943 20 67 76 / 943 20 09 18. **FAXA:** 943 20 28 72.

**Astekararen E-MAILak:** [erredakzioa@etakitto.com](mailto:erredakzioa@etakitto.com) / [komunikabideak@etakitto.com](mailto:komunikabideak@etakitto.com) / [publizitatea@etakitto.com](mailto:publizitatea@etakitto.com) **Elkartearen E-MAILak:** [elkartea@etakitto.com](mailto:elkartea@etakitto.com) / [normalizazioa@etakitto.com](mailto:normalizazioa@etakitto.com)

**ERREDAKZIO-KONTSEILUA:** Itziar Albizu, Maider Aranberri, Jose Luis Gorostegi, Silbia Hernandez, Koldo Mitxelena. **ADMINISTRAZIOA:** Marisol Uriarte. **KOORDINATZAILER:** Koldo Mitxelena.

**ERREDAKZIO-BURUA:** Silbia Hernandez. **DISEINUA ETA MAKETAZIOA:** Jose Luis Gorostegi.

**ARGAZKI ARLOA:** Leire Iturbe eta S. Hernandez. **HIZKUNTZA ARDURA:** Juan Andres Argoitia eta Maider Aranberri.

**PUBLIZITATEA:** Itziar Albizu eta Belen Ulazia. **Tfnoa:** 943 20 67 76. **AZALEKO ARGAZKIA:** Ayax (Teatro del Noctambulo)

**BANAKETA-ARDURADUNA:** Ainhua Luz. **TIRADA:** 8.050 ale. **INPRIMATEGIA:** GERTU koop. (Oñati).

**COPYRIGHT-A:** ...eta kitto! **LEGÉ-GORDAILUA:** SS/430/92. ISSN: 1132 - 1679

("...eta kitto!" ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik)



EIBARKO  
UDALA



GIPUZKOAKO  
FORU  
ALDUNDIA



EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA  
(HIZKUNTZA POLITIKARAKO  
SAILBURUORDETZA)

Eibarko Udalak, Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Eusko Jaurlaritzako Kultur Sailak diruz lagundutako aldizkaria

## Errebalgo ideia lehiaketia

Arkitektu guztieri zabaldutako Errebalgo Ideia Lehiaketia aurkeztu eben eguazteenian Miguel de los Toyos alkatiak eta Eneko Andueza Hirigintza zinegotzixak. Datorren astian edo hurrenguan parte hartzeko bete biharreko baldintzak prest egongo dira eta, hórrek ezagutzera emon eta jarraixan, hillebeteko epia zabalduko dabe eskatutako dokumentaziñua entregatzeko. Azaldu dabenez, "aurkezten diranazko prozesu parte-hartzaillian sortu ziran erabillerak-eta kontuan euki biharko dittue, bestiak beste erabillera publiko-

rako izatia, merkatu plazarako gunia eukitzia, aparkatzeko tokixak... danak betebiharreko baldintzetan zihaztuko dira".

Epaimahaixak lehiaketara aurkeztutako guztiak aztertu eta bost onenak aukeratu-ko dittu eta bakotxak 6.000 euroko sarixa jasoko dau. Bigarren fase batian, aukeratuak presentauko dittue eta herrittarrak hórren artian nahixago dabena aukeratzeko modua eukiko dabe. Bost onenen artian aukeratzan dabena Errebalgo obrarendako oiñarrixan izango da. Biharrak udarako lizitaziñora etera nahi dittue.



Eneko Andueza eta Miguel de los Toyos Errebalgo Ideia Lehiaketia aurkezten.

## Rheyde Lanabesak-en azalpenak

Aurreko astian Rheyde Lanabesak-eko bihargin bat kaleratu ebela argitaratu genduan, CCOO sindikatuaren informaziñuari jarraituta eta, hori irakorritta, enpresiak idatziz azaldu desku bere ikuspegixa: "Gure enpresia bihargiñen eskubidiak errespetau eta betetziaz arduratu da betidanik, batez be famelixa eta biharra uzartzeko kontuetan". Bihargiña kaleratzeko arrazoiak "bere eskubidiak aldarrikatziarekin edo delegaua izatiarekin zerikusirik ez dakela" argi laga nahi dabe eta, diñuezez, "CCOO-k gai inportantia apropos isildu dau". Lehiakor-tasun kontuengaittik, bihargin guztieri erreleboko lanaldixa ipintzia erabagi eban enpresiak eta "legitimidade osuarekin desadostasuna azaldu eban bihargin bakarra" kaleratutakua izan zala diñue: "Zuzendaritzarengana mehatxuekin jo eban eta, horregaittik zabaldu jakon kaleratzia eragin daben zigor-espeditia.



Kaleratu eta bi egunera burofaxez lanaldixa murriztu nahi ebala jakiñarazi zeskun, zigorrari aurre egitteko asmo garbixarekin. Gaiñera, murriztutako ordutegixa berak erabagigo ebala esan eban publikoki, enpresaren kaltetan". Errelebo ordutegixa 06.00tatik 14.00etara bittartekua izanda, semia zaindu ahal izateko murrizketia seirak eta zortzirak bittartian egittia eskatu eban. Zentzubako eskaeria deritzo enpresiak, "berezko eskubidia aprobetxatzeko asmo barik enpresaren kaltetan" erabilli nahi izan dabela gaiñeratuta. Enpresiak epaitegixan erabagittakua errespetauko dabela diño.



## Eskubide Sozialen kartia Untzagan

Aurreko zapatuan Euskal Herriko Eskubide Sozialen kartia kalera etara eben. Goiz guztian paneletan idatzitta erakutsi zittuen zirriborruaren edukixak eta ekarpenak, Eibarko Kantuzaleak abesbatzak pintxuak saldu eta kantatzen eban bittartian.

## Sortu-ren jaialdixa

Lehen urtia bete dau Sortuk eta, hori ospatzeko, Oiartzunen jaialdixa egingo dabe domekan: ekitaldixa 12.30xetan hasiko da Elorsoro kiroldegixan eta 14.30xetan herri-bazkarixa eta erromerixia egingo dittue. Bazkariko tiketak Be-leko tabernan dagoz salgai, 10 eurotan.


## FELIX BERGARA ZURUTUZA (apaiza)

I. urteurrena (2013-II-22)

**MEZA ospatuko dugu datorren domekan -2014/II/23- Azitaingo Jasokunde Parrokian, goizeko 11.00etan**



Esker beroenak elizkizunera joango zareten guztioi. IDAZKARIA (M<sup>a</sup> CARMEN FERNANDEZ MEMBRIBE), SENIDEAK, JASOKUNDEKO ELIZTARRAK ETA EIBARKO LAGUN GUZTIAK



## Akademixen azokia

Aurreko asteburuan herriko akademixak euren eskintza ezagutzera emon eben, lehelengoz antolatu dan Akademixen Azokan eta, hórri esker, bestiak beste hizkuntzak, artea edo musika ikasteko herri-



xan daguazen aukerak ezagutzeko aukeria euki eban jendiak. AEK Euskaltegixak bere mahai-xan egindako zozketan, bestalde, sarixa Asentzio Mendizabalek eta Arrate Osorok irabazi eben. Zorionak!

## Kaleratziak Stop-en alkarretaratzia

Datorren asteko eguenerako alkarretaratzia deittu dau Kaleratziak Stop Debabarrenak, 18.00etan Toribio Etxebarriako Kutxa parian, "eskualdeko famelixa baten egoera larrixa salatu eta Kutxak hipotekak eragindakuekin dakan jarrieraren kontra azaltzeko". Kutxak hipotekako kuotak pagatzeko modurik ez zekan famelixa-

xari salaketia ipiñi zetsan iaz eta, plataformakuen arabera, "iaz etxia enkantera etara eben, baiña larregizko klausula demanda aurkeztuta adjudikaziñua geratzia lortu zan. Halanda be, sententzia laster ezagutaraziko dabe eta famelixa kale gorrixan geratu leike".



## autuan

### PINTXO DEVELOPER

Gaur 18.30xetan Pintxo Developer bideojoko zaletuen hirugarren billeria egingo dabe Errebal kaleko Anardi tabernan. Gertatu dinamikaren barruan egingo dan billeria zaletu guztiendako zabalik dago.



### EIBARKO MUGARRIXAK

Eibarko mugarri guztiak etapa bittan ezagutzeko aukeria egongo da martxuaren 15ian eta 29xan, Klub Deportiboko Julian Etxeberria, Periko Iriondo eta Angel Treviñok egindako biharrari esker. Oñiez 35 kilometro eginda 71 mugarrixak ezagutzeko ibilbidea Ego Ibarra batzordiarene webgunian deskargatzeko moduan ipiñi dabe.

# SUMMER IN THE USA

LEARNING ENGLISH > HAVING FUN > MAKING FRIENDS > BECOMING FAMILY

Pelikuletan bezala!

Epe mugatua!!

Ingelesa

hobetzeko

aukera

ezin hobea!

Izena emateko,  
[www.summerintheusa.com](http://www.summerintheusa.com)  
 web orrian sartu eta "Inscripción 2014"-an klikatu

943-22-49-32 / [office@summerintheusa.com](mailto:office@summerintheusa.com)  
 Vitoria-Gasteiz kalea, 18 behea -DONOSTIA-

EIBAR

Beilatokia  
Funeuskadi Eibar:  
Otaola, 27

ELGOIBAR

Beilatokia:  
SIGMA Industrialdea  
(Olasoko hilerriaren ondoan)

Bulegoa Eibarko erdialdean

24 orduko zerbitzu iraunkorra

943 20 19 51 [www.funeuskadi.com](http://www.funeuskadi.com)

Euskadiko Lehen Ehortze Taldea

GRUPO

# Funeuskadi

asteko  
347.000  
datua

euro galdu ditu IMESA-k azken bi urtietan, EH Bilduren arabera. Aldaketa nabarmenik ezian, 2014rako 60.000 eta 100.000 euroko galerak aurreikusi ditue.



Kontrako botorik ez da egon aurtengo udal aurrekontua onartzerakuan. SILBIA HERNANDEZ

## Udal aurrekontua onartu dabe

Ezusteko barik, aurreko barixakuan onartu eben 2014rako 32'7 millioi euroko udal aurrekontua, al-deko hamaika boto (PSE-EE alderdixaren bederlatzi eta PP-ren bi) eta hamar abstenziño (Eibar-ko EH Bilduren sei eta EAJ/PNV-ren lau) jaso eta gero. Aurtengo barrittasuna kontrako botorik ez egotia izan da.



## Gure Esku Dago talde-argazkixa

Gure Esku Dago ekimenak deittuta bixar 13.000ian ahalik eta jende gehi-xen batu nahi dabe Untzagan, beste herri batzuetan egindakuaren bide-tik Eibarren be herrittarrekin erretratua etartzeko. Asmua ekimenaren iru-dixa dan esku modukua jendiarekin irudikatzia eta goittik mosaiko itxura-ko argazkixa egittia da eta jende guztia bertara juatera animau nahi dabe.

## Jubilauak San Balentin ospatzen

Untzagako jubilau etxiak, aurreko barixakuan San Balentin zala-eta, omenaldixa egin zetsen erretratuan ikusten dituzuen Marian For-cen eta Domingo Barcelonari, alkarrekin urte gehixen daroian biko-tia izatiagaittik. 59 urte bete ditue ezkondata eta, hori ospatzeko, oparixa emon zetsen jubilau etxeko lagunak.

## Saskibaloirako sarrerak

Benicoba dendakuak Gipuzkoa Basket taldiak Valencia Basket taldiaren kontra Donostian jokatu eban partidua ikustera juateko sarrerak zozketatu zittuan. Erretratuan ikusten dozuen Charo Martinek sarrera bi jaso zittuan eta beste horrenbeste emon zetsazen Marisa Vicente eta Zo-rión Belar zozketako beste irabazlieri. Hurrengo zozketan martxuaren lehen asteburuan Bruixa D'or taldiaren kontra-ko partidua ikustera juateko sarrerak zozketatuko ditue. Bestalde, Eibarko edozein kirol taldek dendan sarrerak es-ku eta jasotzeko aukeria dakala gogorarazi nahi dabe.




# Milagros Galvan Arambarri

- I. URTEURRENA: 2013-II-22 -



FAMILIAKOEK EZ ZAITUGU AHAZTEN





*Victor Barahona eibartarrak hitzaldia eman zuen otsailaren 11n Eibarko Industria Ingeniaritza Teknikoko Unibertsitate Eskolan permakulturari buruz. Gaur egun Astigarragan bizi da eta 22 urte eman ditu telekomunikazio industrian lanean. Nekazaritza iraunkorraren munduan, naturarekin modu harmonikoan lan egiteko moduak eta "baserriko hardware irekia" esperimntatzen ditu. Webgunea eta kontua ditu Facebook eta Google Plus-ean, egiten duen guztiaz informatzeko: [www.permaculturaaralar.com](http://www.permaculturaaralar.com), "Permacultura Aralar" izena bilatuta.*

**VICTOR BARAHONA (Ingeniaria):**

## **"Permakulturak naturari imitatuz espazioak diseinatzen laguntzen digu"**

**- Zer da permakultura? Zeren inguruan dihardu esparru horrek?**

Definizio bat baino gehiago onartzen badu ere, paisaia eta gizakientzako nekazaritza iraunkor eta harmoniatsua lortzen saiatzen den mugimendua da. Naturari imitatuz diseinatzen ditugun espazioetan lantzen dugu: inork zaindu barik, sinergiak sortuz. Hori hainbat produktuekin egin dezakegu, gure kontsumorako, ahal duzun neurriraino helduz. Hainbat pisuko proiektu lor dezakegu: horretarako, dena dela, giro tropikala duten herrialdetan errazagoa da prozesua abiatzea gurean baino, hotzak-eta gauzak zailtzen dituelako.

**- Zelako onurak ekartzen ditu? Zertan apliaktu daiteke**

Badu arazotxo bat: hasieran ahalegin berezia eskatzen duela diseinuan. Behin abiatuta, eskatzen duen zaintza minimora jaisten da eta hori abantaila da. Epe luzera begirako asmoa da, gaur egun indarrean dagoen testuinguruarekin ezkontzen zaila dena: ekonomiari baino, permakulturak ekologiarri erreparatzen dio batez ere. Sistema honek ihes egiten dio mekanizazioari, ez du kompetibitatea lantzen. Jasangarritasunaren alde egiten dugu eta luzera jokatzen, petrolio eta makinaria baztertuz.

**- Baina urteak dira permakultura sortu zela. Zergatik ez du aurrera egin? Zein arazo ditu?**

20 urte nituenean ezagutu nuen eta beste 28 pasatu dira dagoeneko. Bruce Charles Mollison australiarra izan zen lehena bide hori zabaltzen. Itxurazko permakulturgile asko dago: gauza polita da, utopikoa, dena da jauja. Eta, horren aurrean, betiko nekazaria itxi egiten da, badakielako soroan zenbat lan egin behar den produktua ateratzeko. Etorri berriek, bestalde, pentsatzen dute ia lanik ez dela egin behar, txori asko buruan, eta hippy eta antzerakoak erakartzeko ez dio inolako mesederik egiten proiektuari. Horregatik, nire proiektuei atxikitu nahi izan diet. Helmuga urruti dago.

**- Gaur egun zein projektutan zaude sartuta? Epe laburera baduzu helbururik?**

Lursaila bilatu nuen, 1-2 hektareakoa, nire familiarentzat aproposa izan zitekeena. Baina, Unibertsitatean Ingeniaritza Teknikoa erakustean, sormena ere lantzearen aldekoa naiz, ez bakarrik gauzak landatu. Horregatik baserriko hardware irekia bultzatzen dut: gauzak garatu eta ezagutzak partekatzeko. Bi 3D inpresora egin nituen iaz, eskuz, piezaz pieza, baserrian behar ditu-

**"Gurean urarekin argindarra sortzeko turbina egin dut eta Interneten jarri"**

dan gauzak inprimatzeko. Orain arte bisita gidatuak egin ditut, diseinua erakutsiz eta jendea gustatu zaio. Badago EEBBetan etxe ospetsu bat, "Aurpegi askotarikoa" deitzen dena; gustatuko litzaidake hura imitatzea, familia mailan.

Bestalde, gauza asko izaten ditut aldi berean eskuarteetan; pixka bat anarkikoa ere banaiz lanean. Esaterako, gurean urarekin argindarra sortzeko turbina bat egin dut, plastiko biodegradagarrian. Interneten jarri dut, eta mundu osoko jendeak deskargatu du diseinua. Teknologia maila sinplean lan egitea gustatuko litzaidake. Ea apirilera instalazio osoa egiten dudana, autosufizientzia hori lorzeko. Negutegi txiki bat ere egin nahiko nuke.

**- Badago herrialderik permakulturak indarrik hartu duenik?**

Australian jaio zen eta han sustraitu da batez ere. Baita Zeelanda Berrian eta Erresuma Batuan. Herrialde horietan sendotuta dago, maila batean behintzat. Hemen ez da halakorik gertatu: prentsa txarra izan du. Baina ahalmen handia du, gizakiak dituen arazo asko konpontzeko ekuazioaren parte nagusia delako. Soberania eskaintzen digu: gehitzeko balio digu, partekatzeko eta erantzunak sortzeko. Hare ale bakarra izanda ere, Mollisonen zioen moduan, "herrialde berde alternatiboaren alde".



3. DBH-ko ikasleak Kandantxun eta Jakan izan ziren elkarren arteko harremanak sendotzen.

## La Sallekoak eskalatzen eta eskiatzen

Orain dela egun batzuk La Salle Azitaingo 2. DBH-ko ikasleak Elgoibarren egon ziren eskalada ikastaroa egiten eta bertan ikasitakoa praktikan ipintzen. Irakasleen arabera, "ikastaroan, eskalatzeko teknikak eta kirola segurtasunez egiteko behar diren materialak ezagutzeaz gain, elkarrekin goiz zozagarria pasatzeko aukera izan zuten". Eta ikastetxe bereko 3. DBH-ko ikasleak, berriz, egun bi eman dituzte Kandantxun eta Jakan, inguruak ezagutzen eta, nola ez, eskiatzen eta elkarren arteko harremana sendotzen.



## Koro Gazteak mutilak behar ditu

Eibarko Koro Gazteak mutilak behar ditu, Elena Martin zuzendariak aditzera eman duenez. Abestea gustoko izanez gero, 15 eta 25 urte bitarteko mutila bazara eta nesken ahol-tsei laguntzeko prest bazaude, Eibarko Musika Eskolara (Portaleko 4. solairura) joan zaitezke informazioa eskatzera. Eibarko Koro Gazteak barixaku arratsaldetan, 16.00etatik 18.00etara egiten ditu entseguak eta zuzendariak mutil gazteak bertatik pasatzera animatu nahi ditu, entsegua ikusi eta nahi dituzten azalpenak emateko.

## Enpresa-simulazio proiektuen aurkezpena Uni Eibar-Ermuan

Uni Eibar-Ermua ikastetxean Administrazio eta Finantza Goi Mailako zikloko bigarren mailako ikasleek Enpresa Simulazioa moduloko ikasketa amaierako proiektuak aurkezten dihardute otsailean zehar. Ikasleen proiektuen aurkezpen horietan, besteak beste, Vanesa Hortas Debegesan enpresa-proiektuei laguntzeko arloko arduraduna, Asier Arana eta Nerea Izagirre

Ermuko Udaleko Enplegu eta Garapen arloko ordezkariak, Jordi Lorenzo Izarra Fundazioko zuzendaria eta Esther Bilbatua MU-ko praktikaria batzen dira, ikasleen azalpenak entzuteko.



## MANOLO MAGRO ALVAREZ

3. URTEURRENA (2011-II-26)

Ahaztezina zara.  
Maite zaitugu.

ETX EKOAK





Ate joka doguz, atzera be, gure herrixak kultur esparruan oihartzun haundixena hartzia lortzen daben Antzerki Jardunaldixak. Oingua 37. ediziñua izango da eta astelehenian aurkeztu zittuen jardunaldixok martxuaren 7xan hasi (ohikuak egin diran giza estatuekin) eta apirilaren 13an amaïttuko dira Italiatik datorren "Giulio Cesare" lanarekin. Bigarren ediziñua izango da Txema Cornago ez daguala gurekin, baiña haren hutsunia estaltzen ahalegindu da, barrero be, Juan Ortegak zuzentzen daben taldia. Sarreraren salmentia bixar hasiko da: Coliseoan goizeko 10.00etatik arratsaldeko 16.00ak arte egongo da txarteldegixa zabalik, eta domekan eta astelehenian 10.00etatik 14.00etara. Sarrerak interneten be erosi ahal izango dira, hor be bihartik aurrera. Aurtengo aurrekontua 150.000 eurokoa da, iazkoa baiño zeezer gehixago.



Astelehenian egindako Jardunaldixen aurkezpena. SILBIA HERNANDEZ

# Hilabetetik gora antzerki

**N**eri aurkeztuko baleste egitarau hau eta zein baliabiderek antolatu dogun esan, ez neuke siñestuko". Holan laburbildu zeban Juan Ortega, jardunaldixetako arduradunak, karteldegixa osatzeko egindako ahalegiña eta lortutako emaitza. Aldi berian, Udalaren inplikaziñua eskertu eban Ortegak astelehenian udaletxian egindako

aurkezpenian. Oin dala urte eta erdi hildako Txema Cornago gogoratuta ekin zetsan ekitaldixari eta, berarekin, Ricardo Martin eta Juan Luis Vazquez Fraguas izan ziran mahai-xan. Aldi berian, Juan Aldaik zine emanaldixen arluan egindako lana eta Plano Corto alkartiak emondako erraztasunak eskertu zittuan aurkezpen horretan.

## Boadella bigarrenez

Martxuaren 7xan T. Etxebarria kalia eta Untzagan giza estatuekin hasiko dan programaziñuak (12. urtia da kale ekitaldi hori egitten dala), handik hiru egunera, martxuaren 10ian izango dau ohikua dan antzerkixaren inguruko hitzaldixa. Lehelengo bidar oin dala 26 urte etorri zan Albert Boadellak eskinduko dau aurtengua: oiñ arte errepikatuko daben bakarra izango da bera. Ortegak gogoratu eban, Imanol Ariasek emon zeban lehelengo hitzaldixa, oin dala 36 urte, eta datorren urtian bera ekartzen ahaleginduko dira.

## Programa osatua

Antezlan guztiak merezi dabelakuan dagoz antolatzaillik, betiko ahalegiña egittiaz gaiñera emaitzarekin be oso pozik geratu diralako. "Programa konpletua osatzia lortu dogu", diñue harrotasun apur batekin, "esku artian izan dogun aurrekontuarekin bene-benetako



"Zazpi aldiz elur" lanak Mikel Laboa du protagonista.

aktoria diran giza irudixak, umiendako lan bi, unibersidade talde bi, laburmetrajiak... eta goi maillako hamalau konpaiñien azken lanak ikusteko aukeria izango dalako gurian".

## Euskarazko hiru lan

Markeliñeren "Kapsulak" lana (martxuaren 8xan), Karriakaren "Inungane, sustraiak airean" (martxuaren 16xan) eta Tanttakaren "Zazpi aldiz elur" (martxuaren 24an) izango dira



Pentacioneko "Conversaciones con mama" bi egunetan eskainiko da. Maria Galiana eta Juan Echanove izango dira antzezleak.

hórrek hiru lanok. Mikel Laboari buruzko Tanttakaren antzezlanaren aurreko zapatuan estreinatuta zeben Donostian, Iñaki Salvadorren musikarekin lagunduta, eta Karrikak eskinduko dabena "oso ondo egindako antzezlanaren da, ikusliak harritzeko modukoa".

**Mailla haundiko eskintza**

Bestelako antzezlanerari begiratuta, eta antolatzaillik egindako errepasuari kasu egiñaz, hona hamen laburpen txiki bat: "El interprete" musika zuzenian eskinduko dau, akto-

re-musikuak abestu eta antzeztu, bixak egiten ditualako; "Juana la loca" Gema Marrantz oso ezaguna dan Andaluziako antzezlanaren ikusteko aukeria izango dogu; "Conversaciones con mama" lan hunkigarria da eta, horrenbeste urtitan telebisiñuan alkarrekin lan egiñ eta gero, azkenian taula gafiñan alkarrekin jardutia lortu dabe Galianak eta Echanovek; "Que me aspen" umore zirikua eskinduko dau, oin modan dagan umoria, bi saiuetan egun berian; "Ayaxek" efektu ikusgarriak ditu eta



"Ayax" lanean jantziak eta eszenategiak indar handia dute.



Martxoaren 16an Karrikak eskainiko duen "Inungane, sustraiak airean" irudi poetikoa izango da nagusi.

jendia harrirtuta urtetzen dau hor eskintzen diran jantzi eta bestelakuengaittik; "El sotano encantado" umiendako antzezlanaren artian txalotuenetakua izaten jarraitzen dau; "El regimen del pienso" La Zarandaren lan barrixa dogu, gurtzeko moduko edo "teatro de culto" esaten dan horretakua; "Hamlet" ez da betidanik ezagutu dogun Hamlet izango, izen horretako antzezlanaren beste lan bat sortzeko atxakixia besterik ez da izango-eta.

Fetxekin-eta zailtasun haundixekin ekarriko diran lanak be badagoz, danak mailla haundiak: Ara Malikianek errepikatu egingo dau, oinguan orkestarekin, munduko dantzen inguruko ikuskizuna ezagutarazteko; Italiatik ekarri daben "Giulio Cesare" eta Irlandatik etorriko dan "Cirque de Legume" oso gatxa izan da kontratatzia; zer esanik ez Juan Tamariz eta "Magia potajia"-ren kasuan, Tokiotik Eibarrera etorriko da-eta zuzenian, hamendik jarraixan Badajozera juateko.

*egitaraua*

**MARTXOA**

7 (barixakua)	17.00	XII. Giza Irudien Erakustaldia		T. Etxebarrian eta Untzagan
8 (zapatua)	17.00	Kapsulak (Markeliñe)	5€	Coliseoan
10 (astelehena)	19.00	Decalogo para un teatro libre (Albert Boadella)	Doan	Coliseoan
12 (eguztzena)	20.30	El interprete (Madre Constriktor)	15€	Coliseoan
13 (eguna)	17.30	Zinema: Coriolanus	2€	Hezkuntza Esparruan
	21.00	Zinema: Coriolanus	2€	Hezkuntza Esparruan
14 (barixakua)	20.30	Cirque de Legume (Cirque de Legume)	11€	Coliseoan
16 (domeka)	20.30	Inungane, sustraiak airean (Karrika)	5€	Hezkuntza Esparruan
17 (astelehena)	20.30	Juana la loca, la reina (Histrion)	11€	Hezkuntza Esparruan
19 (eguztzena)	20.30	Cuarteto del alba (Laurentzi)	11€	Coliseoan
20 (eguna)	20.30	Conversaciones con mama (Pentacion)	15€	Coliseoan
21 (barixakua)	20.30	Conversaciones con mama (Pentacion)	15€	Coliseoan
23 (domeka)	20.30	La anarquista (Mirandez)	11€	Hezkuntza Esparruan
24 (astelehena)	20.30	Zazpi aldiz elur (Tanttaka)	11€	Coliseoan
25 (martitzena)	20.30	Magia Potajia (Juan Tamariz)	15€	Hezkuntza Esparruan
27 (eguna)	17.30	XIV. Asier Errastiko laburmetraiak	Doan	Hezkuntza Esparruan
	21.00	XIV. Asier Errastiko laburmetraiak	Doan	Hezkuntza Esparruan
29 (zapatua)	20.00	Que me aspen (Joaquin Reyes)	18€	Hezkuntza Esparruan
	22.30	Que me aspen (Joaquin Reyes)	18€	Hezkuntza Esparruan
30 (domeka)	20.30	Queremos ser Seseman (Arrojoscenico)	5€	Hezkuntza Esparruan

**APIRILA**

1 (martitzena)	20.30	Sexpearemente (Producciones Sexpeare)	11€	Coliseoan
3 (eguna)	20.30	Ayax (Teatro del Noctambulo)	11€	Coliseoan
5 (zapatua)	17.00	El sotano encantado (Mutis)	5€	Coliseoan
7 (astelehena)	20.30	El regimen del pienso (La Zaranda)	11€	Hezkuntza Esparruan
9 (eguztzena)	20.30	Ara Malikian & La Orquesta en el Tejado	15€	Coliseoan
10 (eguna)	20.30	Hamlet (Artedrama. Dejabu)	11€	Coliseoan
13 (domeka)	20.30	Giulio Cesare (Producciones 369gradi)	11€	Coliseoan

**Antzerkixa zinian**

Urtero legez, antolatzaillik tartia eskindu detse "Antzerkixa zinian" esparruari. Holan, martxuaren 13an "Coriolanus" pelikulia ikusi ahal izango da Unibersidade Laboralian eta, handik bi astera, Asier Errasti Laburmetrajien azken jaialdixan eskindutako lanen ordua izango da toki berian.

# Agus Perezen

## KALITATEZKO PROGRAMAZIOA

LASTER IZANGO DA GUREAN Eibarko Antzerki Jardunaldien 37. edizioa. Ez da gutxi gero! Programazioari lehen begirada bota eta gero, kalitatea da ezaugarri nagusia, eta aipatzekoa da Eibarrera etorriko diren lan batzuk –El intérprete, Giulio Cesare, Zazpi aldiz elur...– Euskal Herriko antzoki nagusietan ere programatu direla (Bilboko Arriaga, Donostiako Victoria Eugenia, Gasteizko Prinsipal...), horrek adierazten duelako jardunaldien maila handien pare dabilela.

**Gaztelaniazko lan batzuk aipatzearen,** Conversaciones con mamá izango da, zalantza barik, arrakasta handienetako bat, Maria Galiana eta Juan Echanoveren eskutik. Betiere lan nagusien atalean, La Zarandaren El régimen del pienso gaurko krisiaren erretratu surrealista izango da, eta atzeritik etorritakoen artean Shakespeareren Giulio Cesare (Italia) nazioarte mailako proposamen berritzailea da, eta Irlandako Cirque de Légumek neurri txikiko eta berbarik gabeko emanaldi surrealista bat ekarriko du, ikusle finen gozamenetarako.

**Euskarazko lanen artean,** Durangoko Karrika taldeak Inungane, sustraiak airean taularatuko du. Maila ia profesionala duen konpainia amateur honek gai sozialak, euskara eta antzerkia uztartzen ditu bere lanetan, eta oraingo honetan baren bidaia bat proposatuko du sormen kolektibo eta irudi poetikoen bidez. Tan-



ttaka taldearen Zazpi aldiz elur, osterantzean, Bernardo Atxagaren izen bereko testuan oinarritu da Mikel Laboaren figuraz gogoetatzeko, eta taula gainean antzezpeneak eta zuzeneko musika elkartzen dira, edertasun handiz.

**Azkenik, beste Shakespeare edukiko du-gu,** Le petit théâtre de pain, Artedrama eta Dejabu konpainiak elkarlanean aritu ostean. Xabier Mendiguren idazlearen laguntzaz euskarazko Hamlet iraultzaile hau sortu zen eta Euskal Herri osoko txoko askotan antzezten ari dira. Emanaldian zehar ikusleak ezuste askoren lekuko izango dira eta, beste ezeren gainera, ederto gozatuko dute guztien antzeppen bikainekin eta antzerki militantaren balioekin.

## kolaborazioa



## SARRERAK ASTEBURUAN

JARDUNALDIXETARAKO SARRERAK ALDEZ AURRETIK LORTZEKO AUKERA izango da asteburuan, bixar (zapatua) hasi eta astelehenera arte. Bixar goizeko 10.00etatik arratsaldeko 16.00ak arte izango da aurre salmentia Coliseoan. Domekan eta astelehenian, bestalde, ordu berian hasi eta 14.00xetan itxiko dittue leihatillak. Bixartik aurrera be, Kutxabank bittartez erosi ahal izango dira: holan lehelengo egunian sortzen diran illarak saihestia nahi da, ahal dan neurrian. Antolatzaillak aurreikusten dabenez, 20 funziñuetatik lautuan agortu leikez sarrerok lehelengoko egunetan. Funziño gehixenak 11 eurotan dagoz, bostek 15 balio dabe eta badago 18 euroko bat.



**Jorge Imaz Bolinaga**

---

**KOMUNITATEEN  
ADMINISTRAZIOA**

**Bidebarrieta, 6 - 1. ezk.  
Tlf. 943 53 03 03**

**imazjorge@hotmail.com**



publi resa

- Pin-ak
- Metxeroak
- Kamisetak
- Boligrafoak...

PUBLIZITATE ARLOKO eta  
ENPRESETAKO OPARIAK

**Armagin 3 - behea**

☎ eta faxa: 943 70 14 97      Publi.resa@euskalnet.net

## KOMUNITATEEN ADMINISTRAZIOA

30 urte  
Eibarko  
bizilagun-  
erkidegoekin  
konprometitua



Eskatu aurrekontua konpromisorik gabe

ESPERIENTZIAK  
EMATEN DUEN KONFIANTZA



www.euki.com      Tel: 943 200 358

# GREMIOEN GIDA

## ANTENAK

**BALATZ** c.b.  
Instalakuntzak eta konponketak  
antena - telebista  
Bidebarrieta, 37 Tfnoa. 943 20 05 08  
balatz@euskalnet.net Faxa. 943 20 04 94

Ego Gain, 2 - Bac  
Tfnoa. 943 12 73 50  
www.trinmer.com  
**trinmer**  
TELEKOMUNIKAZIOAN  
PROFESIONALAK

## AROTZAK

**IÑAKI**  
Egurrezko mota Ateak - Tarimak  
guztietako lanak Altzariak  
Milaflores 10 Tfnoa. 943 20 35 55

**SUKALDE ALTZARIAK**  
\*  
**AROTZEGIA**  
Iparragirre Anaiak  
F. Calbetón, 4 behea Tel. 943 20 29 27  
Tailerra: Apalategi auzoa Tel. 943 12 01 92  
Mobila: 657 79 56 78

**ulmar**  
S.L.  
metalezko eraikuntzak  
aluminiozko eta PVC-ko aroztegia  
baita toldoak, gortinak, estoreak etabar  
Txonta, 30 - 1. eta behea  
Tfnoak: 943 12 13 67 Faxa: 943 12 01 50  
ERAKUSKETA  
EIBARREN, Ur-kizu 26an (Tel. 943 12 74 01)

## ELEKTRIZITATEA

943 530 356 **electricidad**  
688 674 242 **alberto**  
INSTALAZIOAK ETA  
instalaciones y mantenimiento  
MANTENIMENDUA  
WWW.ELECTRICIDADALBERTO.COM  
dasilvaalberto@hotmail.es

Ego-Gain, 9 ac. ARGIZTAPENA,  
KONPONKETAK  
ETA INSTALAZIO  
ELEKTRIKOAK  
**b**arra 677 51 24 62  
943 20 06 97

Tel. 610 532 922  
**THELECER**  
TELEKOMUNIKAZIOAK  
ELEKTRIZITATEA  
ENERGIA BERRIZTAGARRIAK  
24 orduko urgentsiak

## ERAIKINEN MANTENUA

**I.T.E.** INSPECCION  
TECNICA DE  
EDIFICIOS  
ERAIKINEN  
IKUSKAPEN  
TEKNIKOA **E.I.T.**  
info@ajtfoficina.com tlf. 943 20 18 30  
AJT Zihurtasuna s.l.p.  
Toribio Etxebarria, 4 behea A



# Informazio gehiagorako



943 20 67 76



## GARBIKETAK

**Limpieza Multiservicio Eibar**

Superficie mota guztietako garbiketa eta mantenimendu zerbitzua

Tfnoa. 943 254 615  
Mobila 688 609 171  
www.multiservicioeibar.com Barrena, 21 - 1. F

**TREJO GARBIKETAK S.L.**

Tel: 943-752557  
Faxa: 943-752556  
16 Postakutxatila - Soraluze

*Garbiketa eta mantenimendua*

## IGELTSEROAK

**CAMILO ALVAREZ** IGELTSERITZA

*OROKORREAN*

- Barne erreformak (sukaldeak, bainugelak, leihoak etb.)  
- Gremioen koordinaketa

Jardiñeta, 25 - behea  
620 060 104 (Ernesto) / 600 465 789 (Fran)

**irazabal**  
Jose Maria Irazabal, S.L.

ERAIKUNTZA ETA ERREFORMAK  
IGELTSERITZA ETA  
GREMIOEN KOORDINAKETA

*eraikuntzak erreformak igeltseritza*

Azitain Industrialdea, 3 H Pabilioia  
Tfnoa. 943-120108  
www.irazabal.net

## ITURGINTZA

Gasa Kalefakzioa  
Klimatizazioa  
Eguzki Energia

**Jardines Iturgintza**

Tel. 943 206 913  
615 782 638  
615 782 637  
Fax. 943 254 929

Jardiñeta, 11 B  
fontaneriajardines@euskalnet.net

**MUGICA** ITURGINTZA

AIRE EGOKITUA, ITURGINTZA,  
GASAREN INSTALAZIOA, KALEFAKZIOA,  
PETROLIO-PRODUKTUAK, BAINUEN  
ERREFORMAK ETA ABAR...

**HANGROHE** KANILEN BANATZAILEA  
ZORU ERRADIATZAILEA  
EGUZKI-ENERGIA

Egigurentarren, 18  
Tel. 943 20 10 30 - Faxe. 943 20 72 24

## KRISTALAK

**ACHA** Kristaldegia

TAILERRA: ERREKATXU, 3an  
KRISTAL ARLOKO SOLUZIOAK

info@cristeriaacha.com **ERAKUSKETA**  
eta faxa: 943 203 903 Arikitzaneko Zubian

## PINTURAK

DECORACIONES **AIXA**  
José Luis Irionda

Pintura orokorra  
Margotutako paperak  
Zoruen kolokazioa  
PVC zoruak  
Maketak  
Alfonbrak  
Kortinak  
Etixerakoak  
Osagarriak

Tfnoa. eta Faxe. 943 20 05 94  
T. Etxebarria, 8 - behea

**baglietto** PINTUREAK

Zoru mota guztiak  
Pinturak  
Dekorazioa

Errebal, 21 Tel/Fax: 943 20 19 22

**PINTURAS ARRATE, S.L.**

- Nexa Autocolor
- Pintura industrialia
- 3M produktuen banatzailea

MATSARIA, 34 behea - A  
parrate@terra.es  
Tel. 943 20 41 04 Faxe: 943 70 06 89

**MALVAR** PINTURAS

Sostoa, 16 ac behea  
Tfnoa. eta Faxe. 943 700 900  
Mobila. 656 784 396

**VICTOR GONZALEZ FRAIZ** PINTURA OROKORREAN

BARNE eta KANPOko dekorazioa eta pintura,  
FATXADAK, PINTURA BEREZIAK,  
ENPAPELATUAK, GOTELÉ...

Bizkaia Etorbidea, 9 -ERMUA-  
696-565394 / 943-030540  
victor-fraiz@hotmail.com

## Urbateko igerilariak ikusgarri Euskal Herriko txapelketan

Iruñean jokaturako txapelketa horretan taldekide guztiak bikain jardun arren, neskak nabarmendu ziren batez ere. Horrela, Nora Varela absoluto mailako hiru probatan nagusitu zen (bular arlokoak) eta gauza bera egin zuen beste hiru probatan Ion Mujikak (Bidasoa klubarekin lehiatzen badu

ere, Urbatekoekin entrenatzen du), azken hau bizkar eran nagusituz. Nekane Tejedorrek eta Aitzol Arrillagak ere podiuma zapaldu zuten. Juniorretan eibartarrak ez ziren gutxiago izan: Ioar Urkirik hiru proba irabazi zituen eta beste bitan bigarrena izan zen, eta Ander Izagirrek bi proba irabazi zi-



Urbateko igerilariak podiumetik podiumera ibili ziren.

tuen beste bitan azpitxapel-dun geratzeko. Erreleboetako probetan, gainera, podiumetik gertu izan ziren guztietan.



## Denboraldiko azken eski irteera

Klub Deportiboko eski batzordeak antolatutako irteeren azkena egingo dute martxoaren 8 eta 9ko asteburuan. LHko 5. eta 6. mailako eta DBHko 1. eta 2. mailako ikasleentzat prestatuko dute (75 euro, tartean bidaia, ostatua pentsio erdian, forfai, monitorea eta alokairua) eta baita 18 urtetik gorakoentzat ere (70 euro, bi-

daia eta ostatua pentsio erdian). Gazteenak Triton aterpetxean egongo dira eta helduak Villa Anayet hotolean eta Somporten iraupen eskia egingo dute eta Astunen alpinoa. Izena Deporren eman daiteke martitzen eta eguenetan, 19.30etatik 20.30etara (943-201904 eta eski@deporeibar.com).

## Durangok titulurako bidea hartu du

Gauzak argitze aldera, garrantzi handiko garaipena lortu zuen Durangok Koskorren aurrean (2-1). Horren ondorioz, Txokok egin du jauzi bigarren posturaino (2-0 Irukiri). Hiru horiek dira txapela jartzeko hautagai bakarrak: abantaila, beti ere, Durangok du, partidu bat galduta ere goi-goian jarraituko bailuke. Sailkapeneko behe aldean, bestalde, Aretok bigarren garaipena lortu du jarraian: orain arte partidu-

rik irabazi gabe zegoen talde bakarra zen.

Goleatzaileen sailkapenean, azken jardunaldian Oishi Tankemans-eko Yosuk lortutako bost golei esker, ihes egin die sailkapenean berarekin borrokan dihardutenei: atzetik datoz, hiru goletara, Roberto (EzDok) eta Nourdin (Azkena Kalton); laura dago Josu (Txoko) eta seira, 11 golekin, daude Txoko Arriaga eta Conde, Durangoko Unai eta Alkidebako Roberto.

## Eibar Foball Taldearen 75. urteurrena (1940-2015)



**E**ibar

**M**unduan

## Hiru pilota jaialdi asteburuan Eibarren

Afizionatu mailako bi (gaur arratsaldean eta domeka goizean) eta profesionaletako domeka arratsaldekoa: bi jaialdi Astelenan izango dira eta domeka goizekoa Ipurua kiroldegian. Gaur 19.15etan hasita, hiru partiduko jokatu dira Astelenan: Deporrek alebinen arteko hasteko eta, jarraian, Arribillaga-Unamunzaga Añorgako Urmeneta-Maizaren aurka eta, amaitzeko, Agirresarobe-Agirrebeña Usurbilgo biko-

tearen kontra. Domeka goizean, 11.15etan, Ipurua kiroldegian Deporrek alebinen artekoarekin hasiko da jaialdia (Simon-Azkargorta vs Abalos-Gutierrez), segidan gazte mailan Deporrek Arribillaga-Urionabarrenetxea bikoteak Legazpiko Ibarguren-Debari aurre egiteko.

Etzi arratsaldean, Aspe enpresako Irujo-Bariola bikoteak (Barriolaren parte-hartzea zalan-tzan dago) Asegarceko Urrutikoetxea-Beroizi

egin go dio aurre, binakako I. mailako profesionalen arteko txapelketaren barruan. Aurretik, Re-tegi Bi eta Larrinagak nor baino nor jardungo dute Apezetxea eta Cecilioaren aurka. Eta amaitzeko, bestalde, promozio txapelketan diharduten bi bikoteen arteko lehia izango da: Lemuno eta Larunbe Gorra eta Merinoren auka.



Irujo eta Bariola: erabakigarria izan daitekeen puntuaren bila.

## Urkiko neskek Gipuzkoako txapelaren bila

Urkiko infantil mailako nesken taldeak 3-2 irabazi zion Anaitasunari Gipuzkoako txapelaren arteko fasearen lehenengo partiduan. Horraino iritsi aurretik onenak izan ziren euren multzoan, nagusitasun handia erakutsiz eta, horren adibide, azken jardunaldian 0-12 irabazi zioten Arizmendiri. Bestalde, eibartarren arteko erregional mailako partiduan, Urkiko 0-3 irabazi zion Eibartarrak-i Unben. Ander, Galder eta Eneko izan ziren goleatzaileak.



## Xakeko bigarren taldea goian

Azken jardunaldian 2'5-1'5 galdarren, Deporrek 2. mailako xake taldea lehenengo mailarako igoera play-offa jokatzeko postuan dago, azken txandaren faltan sailkapeneko bigarren postuan baitago. Liderrarengandik puntu bakarrera daude eibartarrak.

Maila goreneko taldeak, bestalde, binako berdinketa eskuratu zuen Hondarribia-Marlaxka A talde indartsuaren aurka: Ricarko Bastida eta David Perez izan ziren irabazleak. Sailkapenean 3. postuan daude eibartarrak, liderrarengandik bi puntu eta erdira.

## berriak

### ESKUBALOIA

Somos Eibarrek 41-30 irabazi zion Bm Corralesi, bigarren zatian atsedendiko 14-15ari buelta emanda. Bihar aurkari zaila izango dute Zaragozan: Stadium Casablanca hirugarren sailkatua. Garaipen batek igoera fasea gertuagotu egingo luke.

### JUDO

Aurreko asteburuan Hernanin jokaturako Gipuzkoako txapelketarako fasean, urrezko domina lortu zuten Kalamua taldeko bost gaztek. Ne Waza (judoa lurtean) modalitateko I. txapelketan, bestalde, Nekane Muguruzak urrezkoa irabazi zuen. Nage Wazan (judoa zutik) beste hainbat domina irabazi ditu.

### ERRUGBIA

Eibar Hierros Anetxeko nesken taldeak partiduko bikaina jokatu zuen Unben Durango/Urbealde taldearen aurka. Hala ere, Amaia Telleriak zuzentzen dituztenek 10-22 galdu zuten, bigarren zatian gehiago izan baziren ere. Entseguak Lucia Moyak eta Amaier Mayok gauzatu zituzten.

## FELIX LAHIDALGA BALZATEGI

2014ko otsailaren 15ean hil zen,  
82 urterekin

FAMILIAREN IZENEAN, ESKERRIK BEROENA

gure nahigabean lagundu diguzuen guztioi  
eta hileta-elizkizunera joan zinetenoi.

## Cielitoren Udaberri Kontzertua

Domekan 12.30etan txirindularitzari eskainitako doinuak nagusituko dira Cielito Musika Bandak Coliseo antzokian emango duen kontzertuan. Udaberri Kontzertuko bosgarren edizioa beteko da aurten eta Eibarko Txirindularien Elkarteak azaldu dituztenez, "70eko hamarkadan txirindularien lasterketak iragarzetez Strauss-en polkak erabiltzen ziren eta, hortik abiatuta, udaberriari hasiko diren lasterketen aurrekari modukoa Udaberri Kontzertua eskaintzen hasi ziren orain dela urte batzuk. Gainera, kontzertuen harira Carlos Sanchez Barba zuzendariak "Txirindularien Txirrina" izenburuko polka konposatu zuen lehen edizioan eta, harrezkero, txirindulari lasterketak polka horren erritmora hasten dira Eibarren". Domekako emanaldian honakoak eskainiko dituzte: "La chasse" (polka, J. Strauss), "Perpetuum mobile" (polka, J. Strauss), "Un dia en Viena" (obertura, F. Von Suppe), "Una noche en Calatayud" (poema sinfonikoa, P. Luna), "Ohne



Txirindularitzari eskainitako polka eta beste doinu batzuk joko ditu Cielito Musika Bandak domekan. LEIRE ITURBE

Sorgen" (polka, J. Strauss) eta "Txirindularien Txirrina" (polka, Carlos Sanchez Barba). Bestalde, eguraldiak laguntzen badu, kontzertuaren aurretik, 11.30etan, Cielito musika bandakoek kalejira egiteko asmoa dauka.



Malen Txurruka eta Elena Varela.

## Piano-jole gazteak Andoainen

Aurreko asteburuan, zapatuan eta domekan Andoainen egin zen 9. Piano Jaialdian 880 piano-jolek hartu zuten parte, tartean Eibartik joandako 12-18 urte bitarteko 50 bat gaztek. Pianoa protagonista den jaialdiak, bertan lehiatu ziren ikasle gazteak ez ezik, haien guraso eta senideak ere erakarri zituen eta, urtero lez, eibartarrak pozarren bueltatu ziren. Astelehenean txikienek Andoainen jasotako dominak ikastetxera eraman zituzten, lagunei harro-harro erakusteko. Aurten Andoaingo jaialdia agurtzeko emanaldian parte hartzeko aukeratutako ikasleen artean, bestalde, Malen Txurruka eta Elena Varela egon ziren. Piano irakasleek jaialdira joandako ikasle guztiak zoriondu nahi dituzte, ederto jardun zuten-eta.

## Miriam Azpilikueta ren kartelari saria

Ermuko Udalak orain dela egun batzuk aurkeztu du aurtengo Aratosteak iragartzeko aukeratu duten kartela: Miriam Azpilikueta Dominguez, 28 urteko eibartarrak aurkeztutako ari saria eman dio epai-mahaiak. Egileak pailazoen oinetako gorriak eta marra-


dun galtzerdiak marraztuta osatu du kartela eta 450 euroko saria jaso du.

## Berba bikotei botoa emateko aukera

Udal Euskaltegiak eta AEK-k, udaleko Euskara-Kultura sailaren laguntzarekin antolatutako berba bikoteen lehiaketa aurrera doa eta, proposamenak jasotzeko epea amaituta, orain horiei botoa emateko momentua da. Antolatzaileek azaldutakoaren arabera, "guztira 98 parte-hartzaile izan dira eta jaso ditugun berba bikoteak, berriz, 88, hamar berba bikotek ez baitzuten izena+adjektiboa araua betetzen". Parte-hartzaileen proposamenak [www.eibarko-euskara.com](http://www.eibarko-euskara.com) webgunean irakur daitezke eta, gustokoena aukeratu eta gero, 'botoa' dioen tokian klikatu. Botoa emateko epea martxoaren 2an amaituko da.

## Palaciosen argazkiak Grezian sarituta

Juan Antonio Palacios argazkilariak Greziako Argazkilaritza Zirkuitoan hainbat sari eskuratu ditu, bertara aurkeztutako hainbat lanekin. Argazkilaritzaren inguruko lehiaketa Greziako lau hiritan aldi berean egiten da eta mundu osoko argazkilariek hartzen dute parte. Klub Deportiboko argazkilaritza taldeko kideak, besteak beste, Rodasen, United Photographers International elkartearen ohorezko aipamena eskuratu du "Bercianos 2" izenburuko zuri-beltzeko argazkiari esker. Horrez gain, Rodasen bertan eta zirkuitoa osatzen duten Santorini, Creta eta Mikonososen hainbat diploma eta lanen onarpena jaso ditu eibartarrak.





## Vargas Blues Band zuzenean

Gaur 20.30etatik aurrera Vargas Blues Band taldeak kontzertua emango du Coliseoan. Javier Vargas gitarra-joleak gidatzen duen taldea blues taldeen artean eza-gunetakoa da Espainia mailan eta hogeitaz ibilbidea dauka. Gaurko emanaldian publikoak "Heavy City Blues" izenburuko disko berria zuzenean entzun eta gozatzeko aukera izango du. Sarrerak 10 eurotan erosteko aukera izan-

go da, emanaldiaren aurretik antzokiko txarteldegian zuzenean edo, nahiago izanez gero, interneten, Kutxabank.es webgunean.



## Puccini-ren "Turandot" opera Coliseoan

Zapatuan 22.00etatik aurrera Giacomo Puccini-ren "Turandot" operaren emanaldia eskainiko dute Coliseoan. Genevako Carlo Felice antzokian grabatutako opera emanaldiaren proiektioa izango da eta bertan parte hartzen duten abeslarien artean, besteak beste, Daniela Des-



si, Mario Malagnini, Roberta Canzian, Ramaz Chikviladze eta Massimo La Guardia daude. Musika-zuzendaria Donato Renzetti da eta eszena-zuzendaria, berriz, Giuliano Montaldo. Ordu bi eta bost minutuko iraupena izango duen proiektiorako sarrerak 9 euro balio du eta Coliseoko leihatilan erosteko aukera izango da ikuskizunaren aurretik.

## Irigoien Mallorcan


Jose Luis Irigoien Klub Deportiboko argazkilariak erakusketa dauka martxan Palma de Mallorcan. Martxoaren 2ra arte Indian egindako erretratuak ikusteko aukera izango da Centro Cultural de la Misericordia-n (Plaza del Hospital 1, 3º), astelehentik barixakura 10.00etatik 14.00etara eta 17.00etatik 20.00etara eta zapatuetan goizez bakarrik.



## laburrak

### EUSKARAREN EGUNA

Euskararen Nazioarteko Egunean ateratako banakako argazkiak dagoeneko ez daude [www.eibarko-euskara.com](http://www.eibarko-euskara.com) webgunean edozeinek ikusteko moduan. Aurrerantzean argazkiak ikusi nahi dituenak webgune horretan erabiltzaile gisara erregistratu beharko da.




### TRUKOREN ERAKUSKETA

Otsailetik aurrera eta hilabete batzuetan Carlos Trukoren margo erakusketa egongo da ikusgai San Juan kaleko Deika tabernan. El Salvadorren jaio eta gaur egun Eibarren bizi den artistak, koadroak margotzeaz gain, argazkilari zaletua ere bada.

### ZAPATUKO IPUINA

Bihar 18.00etan "Ui! Txikia naizela badakit, baina gauza pila egiten dakizkit!" izenburuko ipuin kontaketa eskainiko du Miriam Mendozak umeen liburutegian, Zapatuko Ipuina programari jarraituta. Sarrera doan izango da.

## JOSE IGNACIO ARIZMENDIARRIETA GARAGARZA (2014-II-12an hil zen, 82 urterekin)



**"Gure Bihotzeko Aitatxo/Aitxitxa maitea, maite zaitugu hasieratik, orain eta betirako. Agurrik ez, gero arte baizik. Lagundu eiguzu, beti bezela. Dana maitasuna zara"** ZURE SENIDEAK



# Basarrietatik bajauta, koko-konparsiak herrixa hartuko dau

Aratostiak ate-joka dittugu eta, nahi dabenak jairako girotzen juateko aukera paregabia eukiko dau bixar, Kezka dantza taldiaren eskutik egingo diran koko-eske eta koko-dantzeri esker. Zapatu goizian hasi eta gaberaño, urtian zihar gure kalietan ikusten ez dittugun hainbat eibartar "ilustre" bisitan eukiko doguz: mamarruak, burburixuak, masustak, aixerixak, hartza, Petra eta Maria, Don Eusebio, Kattalin eta Manuela, Batista kojua, Arrateko Ama-Birjiña, Martin Perratzaillia, sasi-kartia... eta, zelan ez, eureri laguntzen juango dira koko-dantzarixak.

**KOKO-DANTZEN KONPARTSIAK BIXAR 08.30xetan ekingo detsa egunari, Merkatu plazan daguazen basarritarren aurrian eguneko lehen agerraldixa eginda.** Jarraian, talde bitan banatu eta taldietako bategen Mandiolarako bidia eta bestiak Agiñagarakua hartuko dabe: "Amañatik gora Zozola, Zozolabarri, Aritxuluetabarri eta Aritxuluetara igoko gara. Bittartian bigarren taldia Ixuatik Agiñaga aldera bajatzen, ezker eta eskuma daguazen basarrietara gerturatuko da: Altzerreka, San Roman, Aboagaazpikoa, Aboagainea, Torrepe... Mandiola aldeko taldiak, hango biharrek amaittuta Agiñakuarekin alkartuko da eta, hortik aurrera, bixak batera egingo dittue Suinatxoa, Suinaga, Gorostiaga, Atzekoa, Orbesoaren eta Aginagainea. Gora segiduta, Oregizahar, Arandoaurtena, Arandobarrena, Arandoguena eta Arandoetxebarrekin amaittuko dogu".

## Koko-festa kalia

Egun guztia basarrik basari ibilli eta gero, kalia segiduko dau jaixak. Illuntzian, 19.00etan anbulatorixoa pareko parkian alkartuko dira koko-konpartsia eta koko-festaren parte hartzeri animatzen dan jende guztia eta, Mauxitxa txarangiak lagunduta, erdialdeko kalietan (Toribio Etxebarria, Untzaga eta Calbeton inguruan) ibilliko dira, 21.00ak arte. Antolatzailliak gogora ekarri nahi dabe "ekitaldixa irekixa dala, jende guztia animau nahi dogu koko-jantzi eta festan gurekin batera parte hartzeri".



50 bat lagun batuko dira bixarko koko-konparsan. LEIRE

## Eguen Zuri-ren atarikoa

Azken urtietan lez, oinguan be koko-mamarruak egun gitxi barru hasiko diran Aratostieri bidia zabalduko detse. Izan be, datorren astian Eguen Zuri ospatuko da gurian. Batez be umiak hartuko dabe parte egun horretarako antolatu diran ekitaldixetan, 15.30xetatik aurrera ikastetxiak preparatuko jai eta kalejirekin hasitta. 17.00etan, Jainaga eta Narbaizarekin kalejira egingo da, Urkizun hasi eta Untzagaraño. Eta ordu berian hasiko da Lisker taldiak girotuko daben dantzaldixa, Untzagako karpan. Horrekin batera, ipuiñetako personajien kareta, makillajia eta osagarriak egitteko tallarrak egingo dira, Astixarekin.

## Hainbat lehiaketa

Bestalde, Aratostiak dirala-eta, hainbat lehiaketa antolatu dittue. Aratostietan Dotorien Jarrittako Taberna aukeratzeko lehiaketan parte hartu nahi dabenak, otsailaren 27ra arte eukiko dau izena emoteko auke-

ria, Pegorara juanda. Horrekin batera, Arrate Kultur Elkarteak XVII. Eguen Zuri Argazki Lehiaketia antolatu dau. Parte hartu nahi dabenak Aratostiekin loturia daken argazkixak apirilaren 1erako Arrate Kultur Elkartearen bulegora eruan biharko dittu (astelehentik eguenera 17.00etatik 19.00etara). Lehiaketara aurkeztutako lanen artian hiru onenak sarixa jasoko dabe (160 euro, 100 euro eta 60 euro).

El Corte Ingles-ak antolatuta, Barixau Erregularrian (hillaren 28xan) 17.30xetatik aurrera umiendako koko-jantzi lehiaketa egingo dabe dendako ekitaldi aretuan. Hiru eta 14 urte bittarteko neska-mutillak hartu leikie parte, banaka zein taldeka. Banaka aurkezten diranen artian lehengua geratzen danak 60 euroko opari-txartela jasoko dau eta bigarrenak 30 eurokoa. Eta talde onenarendako sarixa 120 euroko opari-txartela izango da.

Eta Aratoste Domekan (martxuak 2) Play-Back lehiaketa egingo da Untzagan,

17.00etatik aurrera. ...eta kitto! Euskara Elkarteak antolatutako lehiaketan Lehen Hezkuntzako 5. eta 6. mailako ikasliak hartu leikie parte, euskerazko abestixekin egindako dantza eta koreografiexekin. Izena emoteko azken eguna astelehena (hillaren 24a) izango da eta interesa dakenak ikastetxian bertan emon biharko detsez datuak irakasle arduradunari. Datuez gain, dantzarako aukeratu daben abestixa CD batian grabauta eruan biharko dabe ...eta kitto!-ra (Urkizu, 11 solairuarta). Epaimahaixak hainbat sari banatuko dittu lehiaketara aurkeztutako taldien artian.



Datorren astian Eguen Zuri ospatuko dabe umiak. KOLDO MITXELENA

# laztanak emoten...

Zure senide edo lagunen bat zoriontzeko aukera ezin hobea eskaintzen dizugu. Argazki arruntaren prezioa 4 eurokoa izango da; argazki bikoitzarena, 8 euro (...eta kitto!ko bazkideentzat %20ko deskontua). Argazkia eta testua eguaztena aurretik egon beharko da ...eta kitto!-n.



Zorionak, ELGA, zure 6. urtebetetzian. Muxu handi bat eta jarraitu beti bezañi alai. Rock on!



Ongi etorri, AIMAR Blanco Gantxegi, hillaen 7xan jaixo ziñan-eta. Muxuak famelixaren eta, batez be, Alvaro, Eneritz eta Julen partez.



Zorionak, NAROA, haraiñegun 10 urte egin zenduaz-en-eta. Zure ama, Egoitz, Markel eta Enekoren partez.



Zorionak, ÉIRE, martitzenian bi urtetxo egin zenduaz-en-eta. Patxo handi bat etxekuen partez, Pitxirri.



Ongi etorri; XABAT Magunazelaia Telleria, hillaen 5ian gure artera etorri ziñalako. Zorionak gurasueri, famelixa guztiaren partez.



Zorionak, OSOITZ, martitzenian lau urte egin zenduaz-en-eta. Muxu potolo bat Julene eta etxekuen partez.



Zorionak, BEÑAT, gaur urtetxua egitten dozu-eta. Muxu pillo bat, Jokin eta etxekuen partez. Aupa, txapeldun!



Zorionak, NAIA, bixar sei urte beteko dozuz-eta. Patxo handi bat famelixa eta, batez be, Heleneren partez.



Zorionak, JUNE (hillaen 5ian sei urte egin zenduaz-en) eta MAIALEN (27xan bederatziz egingo dozuz). Famelixakuen partez.

## hildakoak

- Jose Ignacio Arizmendiarrrieta Garagarza. 82 urte. 2014-II-12.
- M<sup>a</sup> Carmen Mandia Peña. 83 urte. 2014-II-13.
- Arrate Bono Burgos. 56 urte. 2014-II-13.
- Jesus Granado Bombin. 47 urte. 2014-II-13.
- Julio Borralló Mogollón. 96 urte. 2014-II-13.
- Felix Lahidalga Balzategi. 82 urte. 2014-II-15.
- Rosalina Alonso Justel. 82 urte. 2014-II-16.
- Froilana Rodríguez Moreno. 89 urte. 2014-II-18.

## jaiotakoak

- Souhaib Benslaiman. 2014-I-29.
- Oihana Lopez Iturrino. 2014-II-5.
- Xabat Magunazelaia Telleria. 2014-II-5.
- Tamara Esperanza Vecilla Maridueña. 2014-II-6.
- Eki Gonzalo Barrenetxea. 2014-II-7.
- Ane Biribay Gorrotxategi. 2014-II-9.
- Leire Alberdi Etxabe. 2014-II-10.
- Douaa Sabri. 2014-II-11.
- Iker Barrueta Zubiaurre. 2014-II-11.
- Naroa Taboada Cobo. 2014-II-12.

## zinea Coliseoan

(1 ARETOAN)

22an: 17.00, 19.45, 22.30  
23an: 17.00, 20.00  
24an: 20.30

"Presentimientos"

Zuzendaria: Santi Tabernero




(2 ARETOAN)

22an: 17.00, 22.30  
23an: 17.00, 20.00  
24an: 20.30

"Mandela. Del mito..."

Zuzendaria: Justin Chadwick




(ANTZOKIAN)

22an: 19.30  
23an: 20.00  
24an: 20.30

"Agosto"

Zuzendaria: Jhon Wells



(ANTZOKIAN)

22an: 17.00  
23an: 17.00

"La Legopelicula" 3D

Zuzendaria: Phil Lord



## BARIXAKUA 21

### ZIRKOA

**19.00.** Il Circo Italiano. Torrekuan.

### KONTZERTUA

**20.30.** Vargas Blues Band. "Heavy City Blues" lan berria. Coliseoan.

## ZAPATUA 22

### KOKO-DANTZAK

**08.30.** Kezka dantza taldearekin, koko-dantzak eta koko-marruak. Merkatu Plazan.

**09.00.** Mandiola eta Aginaga auzoetako baserrietan.

**19.00.** Herriko erdialdeko kaleetan (anbulategi parean batuta), Mauxitxa txarangak lagunduta.

### GURE ESKU DAGO

**13.00.** Esku erraldoiak osatuta, talde argazki erraldoia. Untzagan.

### ZIRKOA

**17.00 eta 19.30.** Il Circo Italiano. Torrekuan.

### UMEENTZAT ZINEA

**17.30.** "Monster University" filma. El Corte Inglesean.

### ZAPATUKO IPUINA

**18.00.** "Ui!!!! Txikia naizela badakit, baina gauza pila egiten dakizkit". Miriam Mendoza (3 urtetik gorakoentzat). Udal Liburutegian.

### KONTZERTUA

**23.00.** "AZ/DZ" (Irun, AC/DC taldearen abestiak). Ez Dok tabernan.

## DOMEKA 23

### GURASOAK BERBETAN

**11.30.** Itziar Gamero ipuin kontalariaren saioa. Gonbidapenarekin. Portalean.

### ZIRKOA

**12.00 eta 18.00.** Il Circo Italiano. Torrekuan.

### KONTZERTUA

**12.30.** Udaberri Kontzertua, txirrundulari-musikarekin. Cielito Musika Banda, Carlos Sanchez Barbak zuzenduta. Coliseoan.

## ASTELEHENA 24

### IKASTEN

**10.00.** "Mirando al cielo" astronomia topaketa. Beheko Tokia jubilatuta etxean.

## MARTITZENA 25

### IKASTEN

**10.00.** "Mujeres escritoras, siglos XVIII, XIX y XX" hitzaldia. Jose Domingo. Armeria Eskolan.

### GURASOAK MARTXAN

**18.30.** "Como fomentar la responsabilidad" hitzaldia, DBH-ko ikasleen gurasoentzat. Ignacio Zuloaga institutuan.

### AURKEZPENA

**19.00.** "Hala Bedi" liburu dokumentala. Beleko tabernan (Bista Eder, 2).

## EGUAZTENA 26

### IKASTEN

**10.15.** Mendi-ibilaldia: Arrasate-Aretxabaleta-Eskoriatza (bidegorria). Irteera Ego Gaietik, autobus geltokitik (Urkizutik, 10.18etan).

### EIBARKO KANTUZALEAK

**19.00.** Entsegua. San Andres elizako lokaletan.

### KALEETAN KANTUZ

**20.00.** Entsegua. Portalean.

## EGUENA 27

### IKASTEN

**10.00.** "La inquisicion en el Pais Vasco" hitzaldia. Urko Barros. Armeria Eskolan.

### TAILERRA

**10.00.** "Adimen emozionala lan bilaketan", lan bila dabilzenentzat. Portalean.

### KALEETAN KANTUZ

**11.00.** Euskal dantzak, Kezka dantza taldearekin. Portalean.

### EGUEN ZURI

**15.30.** Ikastetxeetako taldeen kalejirak.  
**17.00.** Jainaga eta Narbaizarekin kalejira, Urkizutik Untzagara.  
**17.00.** Dantzaldia, Lisker taldearekin (karpan). Tailerrak: ipuinetako pertsonaien kareta, makillajea eta osagarriak. Astixarekin. Untzagan.

### HITZALDIA

**19.00.** "Oda a la fabrica abandonada". Iñaki Uriarte. Berreibar Ekimen Kulturalak antolatuta. Portalean.

### MENDI JARDUNALDIA

**19.30.** "Euskal Herriak Mundura" mendi lasterketen inguruko hitzaldia. Oihana Kortazar. Klub Deportiboan.

### KALEETAN KANTUZ

**19.30.** Entsegua. Portalean.

## ikastaroak

### ✓ Photoshop argazkilarientzat (oinarrizkoa)

**Noiz:** Martxoaren 10, 12, 17 eta 19an (19.30-21.30).  
**Izen-ematea:** Arrate Kultur Elkarte.

### ✓ Fandango eta arin-arin

**Noiz:** Martxoaren 4tik maiatzaren 20ra. Martitzenero, 19.00-20.30, Kultun. **Izen-ematea:** Arrate Kultur Elkarte.

### ✓ "Herri osasuntsu bat egin dezagun" tailerrak

**Norentzat:** 4-12 urte bitarteko umeentzat, elikadura osasungarria barneratu eta ariketa fisikoaren garrantziaz jabetzeko. **Noiz:** 4-6 urte bitartekoak, martxoak 15, 22, 29 eta apirilak 5 (zapatuak), 12.00-13.00; 7-9 urte bitartekoak, martxoak 8, 15, 22, 29 eta apirilak 5 (zapatuak), 16.30-17.30; 10-12 urte bitartekoak, martxoak 8, 15, 22, 29 eta apirilak 5 (zapatuak), 17.30-18.30. Irakaslea: Aurora Cid (Nutrieibar). **Izen-ematea:** Otsailaren 26ra arte, Pegoran.

## HOROSKOPOA

### ARIES

Mezu bat idatziko duzu, baina ez diozu nahi duzunari bidaliko, irakurtzea nahi ez duzunari baino. Teknologia berriak...

### TAURUS

Artista zara eta ez dagoen lekutik edozer gauza ateratzeko gai zara. Asko daukate besteek zugandik ikasteko: hori seguru!

### GEMINI

Pentsaera erabat aldatuko duzu datorren astean. Aldaketa sakona jasango duzu barrenean, asko pentsaraziko dizuna.

### CANCER

Onartu egin behar dituzu hainbat gauza, horrelakoa izanda ezin dituzunak aldatu. Errealistagoa izan, minik ez hartzeko.

### LEO

Txinurria ala txitxarra zara zu? Negua badoa poliki eta lasaitu zaitez; baina, hain une latzak pasata, zeozer ikasiko zenuen.

### VIRGO

Gauza naturalagoak kontsumitzen saiatu behar zara: jaten dituzun elikagaiak txerrikeria hutsa dira-eta. Baduzu bidea!

### LIBRA

Inork ezin dizu esan zer ezin duzun egin, legerik ez baduzu hausten. Kontentziatuta bazaude behintzat, egin buruan duzuna.

### SCORPIUS

Ez zara fidatuko berak esandakoaz eta... gaizki egingo duzu! Arrazoia zeukan eta konturatuko zara, nahiz eta berandu izan.

### SAGITTARIUS

Ez asmatu hainbeste gauza. Kontu bat da gezurtxo bat edo beste esatea, baina hola jarraitzea etengabe... Egia esan beharko!

### CAPRICORNIUS


Zu engainatzen saiatuko dira, baina azkar ibiliko zara. Ez da jaino engainatuko zaituen hori: bizitzia zara horretarako.

### AQUARIUS

Begietara begira iezazioz eta esazioz zenbat maite duzun. Lotsa ematen dizula? Ireki bihotza behingoz! Egin kasu begiei!

### PISCIS

Modu batera edo bestera, astea ahalik eta ondoen igarotzea lortuko duzu. Ziur egon: konpainia onean amaituko duzu.



## erakusketak

### ✓ Otsailaren 28ra arte

**JUAN IGNACIO AIZPURUAREN** argazki erakusketa. *El Ambigu tabernan.*

**JUAN RAMON LARROCEAREN** argazki erakusketa. *Portalea tabernan.*

**KOKO-DANTZAK EIBARREN** argazki erakusketa. *Depor tabernan.*

### ✓ Martxoaren 2ra arte

**KARLOS MARTINEZ B-REN** "Ordem e progreso" proiektuaren inguruko erakusketa. *Portalean.*

**VICENTE IRIONDOREN** margo erakusketa. *Topalekuan.*

### ✓ Otsailetik aurrera

**CARLOS TRUKOREN** margo erakusketa. *Deika tabernan (San Juan, 1).*

### ✓ Apirilaren erdialdera arte

**VANESSA ATECA-REN** margo erakusketa. *Casanella Studion (Juan Gisasola, 16)*

## lehiaketak

### ✓ Aratosteetan Dotoreen Jarritako Taberna

Izen-ematea: Otsailaren 27ra arte. Pegoran.

### ✓ Emakume Langilearen Eguneko Lan Artistikoen II. Lehiaketa

**Gaia:** Martxoak 8. **Norentzat:** 16 urtetik gorakoentzat, edozein teknika erabilia sortutako artelanekin. **Lanak aurkeztea:** Arrate Kultur Elkartean (astelehenetik eguenera, 17.00-19.00), otsailaren 28a baino lehen. **Saria:** 200 euro. **Informazioa:** Arrate Kultur Elkartea, 943-202299 (mezua laga) edo arratekultu@gmail.com

### ✓ XVII. Eguen Zuri Argazki Lehiaketa

**Gaia:** Aratosteak. **Lanak aurkeztea:** Arrate Kultur Elkartean (astelehenetik eguenera 17.00etatik 19.00etara), apirilaren 1erako. **Sariak:** 160 euro, 100 euro eta 60 euro.

## farmaziak

### ✓ barixakua 21

EGUNEZ **Lekunberri** (Isasi, 31)

### ✓ zapatua 22

EGUNEZ **Iraundegi** (Sostoatarren, 10)

### ✓ domeka 23

EGUNEZ **Elorza** (J. Gisasola, 18)

### ✓ astelehena 24

EGUNEZ **Las Heras** (Calbeton, 19)

### ✓ martitzena 25

EGUNEZ **Mendinueta** (Urkizu, 6)

### ✓ eguaztena 26

EGUNEZ **Golkoetxea** (Ibarkurutze, 7)

### ✓ eguena 27

EGUNEZ **Zulueta** (S. Agustin, 5)

### ✓ barixakua 28

EGUNEZ **Mandiola** (S. Agustin, 3)

## 2014 urte osorako

### GAUEZ

**Azkue** (T. Etxebarria, 4)

## telefono jakingarriak

SOS deiak.....	112
Pegora.....	010
Udaletxea.....	943 70 84 00
Portalea.....	943 70 84 39
Udaltzaingoa.....	943 20 15 25
Mankomunitatea	943 70 07 99
Debegesa.....	943 82 01 10
KIUB.....	943 20 38 43
Epaitegia.....	943 03 34 00
Iberdrola.....	901 20 20 20
Naturgas.....	902 12 34 56
DYA Larrialdiak ..	943 46 46 22
Gurutze Gorria...	943 22 22 22
Mendaro osp.....	943 03 28 00
Anbulategia.....	943 03 25 00
Torrekoa.....	943 03 26 50
Errepideak.....	902 11 20 88
Ertzaintza.....	943 53 17 00
Eusko Tren.....	902 54 32 10
Pesa.....	902 10 12 10
Taxiak.....	943 20 30 71
.....	943 20 13 25
Alkohol.Anon. ....	629 14 18 74
Al-Anon/Alateen ..	650 26 59 63

## autobus ordutegiak

**EIBAR-DONOSTIA.** Lanegunak: 07.00etatik 9.50etara ordu erdiro eta 09.50etatik 20.50etara ordu. Zapatuak: 07.00 eta 08.50etatik 20.50etara ordu. Jaiegunak: 08.30, 10.30, 12.50, 13.50, 15.50, 17.50, 19.50 eta 20.55. **DONOSTIA-EIBAR.** Lanegunak: 07.00, 07.50etatik 13.50etara ordu, 15.00, 15.50etatik 20.50etara ordu eta 21.00. Zapatuak: 07.00, 08.50etatik 20.50etara ordu, 21.00 eta 22.00. Jaiegunak: 08.50etatik 18.50etara bi ordu, 19.30, 21.00 eta 22.00.

**EIBAR-BILBO.** Lanegun eta zapatuak: 06.40etatik 20.40etara ordu. Jaiegunak: 07.40etatik 21.40etara ordu. **BILBO-EIBAR.** Lanegunak: 06.40etatik 21.40etara ordu. Zapatu eta jaiegunak: 07.40etatik 21.40etara ordu.

**EIBAR-GASTEIZ.** Lanegunak: 07.00etatik 21.00etara ordu eta 06.15, 10.15, 14.15 eta 18.15. Jaiegunak: 08.45, 12.45, 16.45 eta 20.45. **GASTEIZ-EIBAR.** Lanegunak: 06.50etatik 20.50etara ordu eta 12.00, 16.00 eta 20.00. Jaiegunak: 10.30, 14.30, 18.30 eta 20.30.

**EIBAR-IRUÑEA.** Lanegunak: 07.45 eta 13.50. Jaiegunak: 07.45 eta 18.00. **IRUÑEA-EIBAR.** Lanegunak: 11.00 eta 18.00. Jaiegunak: 11.00 eta 21.00.

**EIBAR-ARRATE.** Zapatuak: 14.00. Jaiegunak: 09.00, 10.00, 11.00, 15.00 eta 18.00. **ARRATE-EIBAR.** Jaisteko: ordu erdi geroago.

**EIBAR-ELGETA.** Lanegunak: 06.40, 08.40, 13.40, 15.40, 16.40, 18.40 eta 20.40. Zapatu eta jaiegunak: 08.40, 13.40, 15.40 eta 20.40. **ELGETA-EIBAR.** Jaisteko: 20 minutu geroago.

**EIBAR-MENDARO.** Lanegunak: 06.10 eta 07.05etatik 21.55etara 20 minutu eta 22.20. Zapatuak: 07.00etatik 22.00etara ordu eta 23.10. Jaiegunak: 08.00etatik 21.00etara ordu eta 22.15. **MENDARO-EIBAR.** Lanegunak: 06.15, 06.50etatik 21.10etara 20 minutu eta 22.05. Zapatuak: 06.45etatik 20.45etara ordu, 22.05 eta 22.45. Jaiegunak: 07.45etatik 20.45etara eta 22.05.

**EIBAR-LOIU.** Egunerok: 05.50, 09.50, 13.50, 17.50 eta 21.50. **LOIU-EIBAR.** Egunerok: 07.15, 11.15, 15.15, 19.15 eta 23.15.

## tren ordutegiak

**EIBAR-DONOSTIA.** Egunerok: 08.13etatik 22.13etara ordu. Lanegunak: baita 06.13 eta 07.13. **DONOSTIA-EIBAR.** Egunerok: 07.47etatik 20.47etara ordu. Lanegunak: baita 05.47 eta 06.47.

**EIBAR-BILBO.** Egunerok: 08.13etatik 22.13etara ordu, 10.36 eta 21.36. Lanegunak: baita 06.13 eta 07.13. **BILBO-EIBAR.** Egunerok: 06.57etatik 20.57etara ordu, 09.34 eta 20.34. Lanegunak: baita 05.57.

	2	8					
4		6					
1	7		9		6		
	3			1		5	
	8	2	4		5	1	7
	9		2				4
		7		5			6 2
					8		7
				9		3	

## SUDOKUA

2	4	6	3	9	5	8	1	7
7	5	3	1	8	6	4	9	2
9	8	1	2	4	7	6	5	3
4	9	7	5	3	8	1	2	6
6	2	5	7	1	9	3	8	4
3	1	8	4	6	2	5	7	9
8	6	2	9	5	3	7	4	1
1	3	9	8	7	4	2	6	5
5	7	4	6	2	1	9	3	8

AURREKOEN EMAITZA

## 1. Etxebizitza

### 1.1. Salgai

– Pisua salgai Amañan. 2 logela, egongela, sukalde, komuna, balkoia eta ganbara. Kalefakzioa. Leioi berriak. Jantzita, bizitzera sartzeko moduan. Tel. 671-439939.

### 1.2. Errentan

– Pisua hartuko nuke errentan Eibarko erdialdean. Tel. 625-422170.  
 – Pisua hartuko nuke errentan Eibarko erdialdean. Tel. 602-838236.  
 – Logela hartuko nuke alokairuan Eibarren. Tel. 628-882295.  
 – Emakume arduratsua pisua hartuko luke alokairuan. Tel. 679-910991.  
 – Pisua hartuko nuke errentan Eibarren. Tel. 650-152866 eta 698-604531.  
 – Pisua hartuko nuke errentan Eibarren. 400 euro ordainduko nituzke gehienez. Tel. 633-843512.

## 2. Motorra

### 2.1. Salgai

– Mercedes Benz, E-320 CDI klasea salgai. 224 cv. 118.300 km. 2007 urtekoa. Egoera onean. Tel. 630-975501.

## 3. Lokalak

### 3.1. Salgai

– Lokala salgai Untzagan. Merke. Tel. 685-916047.

### 3.2. Errentan

– Garajea alokagai Abontzan. 15 m<sup>2</sup>. Tel. 619-418315.  
 – Lokala alokagai Isasi kalean. 18 m<sup>2</sup>. Estudioa ipintzeko edo klaseak emateko aproposa. Tel. 620-608065.  
 – Taberna alokagai Ipuruan (Egiguren-tarren). Tel. 658-595764.

Atal honetako iragarkiak doan dira, etxeen, lokalen, autoen eta irakaskuntzako eskaintzen kasuan izan ezik. Azken hauetako PREZIOAK honakoak dira:  
 Etxeak, lokalak eta garajeak: alokatu, 10 euro; saldu, 15 euro.  
 Autoak eta irakaskuntzako eskaintzak: 10 euro. Doako iragarkietan, 12 hitz onartuko dira gehienez. **Iragarkiak ipintzeko: 943-200918.**

## 1. ETXEBIZITZA

- 1.1. Salgai
- 1.2. Errentan
- 1.3. Konpartitzeko
- 1.4. Etxe trukaketa

## 2. MOTORRA

- 2.1. Salgai

## 3. LOKALAK

- 3.1. Salgai
- 3.2. Errentan

## 4. Lana

### 4.1. Lan bila

– Neska eskaintzen da arratsaldean edo gauz garbiketarako egiteko eta nagusiak zaintzeko. Tel. 628-223441.  
 – Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 697-697372.  
 – Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 631-572831.  
 – Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 603-221649 eta 634-005760.  
 – Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Baita gauz ere. Tel. 649-626975.  
 – Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Orduka. Tel. 626-197217.  
 – Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 698-723264.  
 – Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Jornada erdiz edo orduka. Tel. 680-121252.  
 – Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Orduka. Tel. 631-466742.  
 – Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 636-419814 eta 631-282203.  
 – Gizonezkoa eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Interno. Esperientzia. Tel. 632-987144. Ruiz jauna.  
 – Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta etxeak garbitzeko. Tel. 636-302237.  
 – Haur Heziketan titulaturako neska eskaintzen da umeak zaintzeko eta etxeak garbitzeko. Orduka edo egun osoz. Tel. 610-658914.  
 – Emakumea eskaintzen da etxeko lanak egiteko. Tel. 696-184323.  
 – Emakumea eskaintzen da umeak zaintzeko, etxeko lanak egiteko eta kamarera jarduteko. 3 urteko esperientzia ostalaritzan. Tel. 652-700744.  
 – Neska eskaintzen da orduka garbiketarako egiteko eta nagusiak zaintzeko. Tel. 672-914649.  
 – Neska eskaintzen da orduka garbiketarako egiteko eta nagusiak zaintzeko. Tel. 654-281645.  
 – Mutila eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta nekazaritza jarduteko. Tel. 632-423984.

## 4. LANA

- 4.1. Lan bila
- 4.2. Langile bila

## 5. IRAKASKUNTZA

- 5.1. Eskaerak
- 5.2. Eskaintzak

## 6. DENETARIK

- 6.1. Salgai
- 6.2. Eman
- 6.3. Galdu/Aurkitu
- 6.4. Bestelakoak

– Erizain laguntzaile eibartarra eskaintzen da goizez nagusiak laguntzeko eta garbiketarako egiteko. Erreferentziak. Tel. 616-607121.  
 – Emakumea eskaintzen da sukaldari 2. mailako ofizial moduan. 14 urteko esperientzia eta erreferentziak. Ordu-tegi zabalak. Tel. 634-853845.  
 – Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Osasungintzan esperientzia eta erreferentziak. Tel. 633-107239.  
 – Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Esperientzia eta erreferentziak. Tel. 600-332954.  
 – Mutila eskaintzen da kamarero jarduteko. Esperientzia. Tel. 608-293711.  
 – Mutila eskaintzen da pegorak edo garajeak garbitzeko eta mantenimendu lanak egiteko. Tel. 692-332871.  
 – Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Esperientzia. Tel. 675-358119.  
 – Emakumea eskaintzen da sukaldari laguntzaile moduan, umeak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Esperientzia. Tel. 697-735046.  
 – Geriatria eta gizarte-hezitzaile ikasketak dituen emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko. Tel. 688-901667 eta 943-530908.  
 – Neska eskaintzen da lan egiteko. Esperientzia eta erreferentziak. Tel. 656-648168. Laura.  
 – Neska eskaintzen da arratsaldean eta gauz nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Erreferentziak. Tel. 636-841158.  
 – Neska eskaintzen da 13.00etik aurrera umeak edo nagusiak zaintzeko eta pegorak eta bulegoak garbitzeko. Tel. 620-757528.  
 – Emakume euskalduna eskaintzen da goizez etxeko garbiketarako egiteko. Tel. 943-201210.  
 – Neska eskaintzen da gauz nagusiak zaintzeko. Tel. 632-337083.  
 – Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko. Tel. 602-865726.  
 – Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Tel. 638-205490.  
 – Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel. 602-023214.

– Emakumea eskaintzen da etxeko lanak egiteko eta umeak edo nagusiak zaintzeko. Tel. 679-910991.  
 – Neska euskalduna eskaintzen da goizez nagusiak zaintzeko eta pegorak garbitzeko. Tel. 617-571210.  
 – Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 669-994669.  
 – Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 609-842165.  
 – Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 639-730884.  
 – Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 632-126668.  
 – Emakumea eskaintzen da lan egiteko. Ordu-tegi zabalak. Tel. 677-860971.  
 – Emakumea eskaintzen da umeak zaintzeko. Baita gaixoak ospitalean ere. Tel. 638-249775.  
 – Neska eskaintzen da lan egiteko. Interneta. Tel. 638-249775.  
 – Emakumea eskaintzen da garbiketarako egiteko eta nagusiak zaintzeko. Ordu-tegi zabalak. Tel. 642-609678.  
 – Emakumea eskaintzen da etxeko lanak egiteko eta nagusiak zaintzeko. Tel. 606-354982.  
 – Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 632-239368.  
 – Mutila eskaintzen da sukaldari lan egiteko eta nagusiak zaintzeko. Tel. 631-053415.  
 – Gizonezkoa eskaintzen da edozein lanetarako: peoia, garbiketarako... Tel. 632-192408 eta 632-569245.  
 – Neska arduratsua eskaintzen da umeak zaintzeko. Esperientzia. Tel. 656-837587.

### 4.2. Langile bila

– Emakume euskalduna behar da nagusia zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 692-685751.  
 – Kamarero euskalduna behar da Eibarko taberna batean. Bidali curriculum-a: informazioahemen@gmail.com

## 6. Denetarik

### 6.1. Salgai

– Balay lehorgailua salgai. 2011koa. 7 kiloko karga. Energia-efizientzia: A. la berria. 300 euro. Tel. 943-254175.  
 – Bi plazako sofa salgai. Beigea, chesloi-arekin eta etzangarria. Oso merke. Tel. 606-882043 eta 943-043008.

### 6.4. Bestelakoak

– Bigarren eskuko DBHko liburuak hartuko nituzke. Gaztelarazkoak: Lengua Castellana, Matemáticas, Ciencias Sociales eta Educacion para la Ciudadania. Tel. 688-606537.  
 – Jende bila nabil Eibartik Bilbora (Miribillara) autoz joan eta gastuak konpartitzeko. 08.00etan joan eta 13.45etan itzultzeko. Tel. 626-349397.

...eta kitto!-ren  
**itzulpen**  
itzu itzu  
**zerbitzua**



**ERA GUZTIETAKO  
TESTUAK  
ITZULTZEN  
DITUGU,  
euskaratik  
gaztelerara,  
gazteleratik  
euskarara,  
eta ingelesetik  
euskarara.**

- Urte askotako  
**ESPERIENTZIA** dugu.



- Bezeroaren  
beharretara  
**EGOKITU**ko gara.

[elkartea@etakitto.com](mailto:elkartea@etakitto.com)

**Eskela,  
urteurren meza  
edo eskertzarik  
jarri nahi baduzu**

**...eta kitto! aldizkarian  
duzu aukera (943 20 67 76)**

## **Asko dira** gure horts-kliniketara etortzeko arrazoiak



**20.000tik GORA PAZIENTE** ASEBETE IZATEA DA HORIETAKO BAT

20 urteko esperientzia eta ikerketa gaur biharko  
arreta jaso dezazun

 **innova**dental  
CLINICAS



### **Createch Medical-en**

etorkizuna gerturaten dizugu,  
implanteetan egiturak egiten espezializatutako  
gure enpresa berritzailearekin



ZURE INNOVADENTAL KLINIKA EIBARREN

 **bista eder**  
clínica dental - horts klinika

Bista Eder, 19 - Bajo  
20600 **Eibar**

Tel: **943 70 00 82**

mail: [bistaeder@innovadentalclinicas.com](mailto:bistaeder@innovadentalclinicas.com)

[www.innovadentalclinicas.com](http://www.innovadentalclinicas.com)

ZURE INNOVADENTAL KLINIKA AZPEITIAN

 **innova**dental [Azpeitia]  
clínica dental - horts klinika

José de Artetxe, 5  
20730 **Azpeitia**

Tel: **943 02 59 55**

mail: [innovaazpeitia@innovadentalclinicas.com](mailto:innovaazpeitia@innovadentalclinicas.com)

[www.innovadentalclinicas.com](http://www.innovadentalclinicas.com)